

BOLUNTARIOTZA PROGRAMA

ITSAS HONDAKINEN IKERKETA

PROGRAMAREN HELBURU OROKORRA

Materren jardueretan parte hartzeko prest dauden pertsonen bila gabiltz, Bizkaiko ekialdeko golkoan, itsas hondakinen kutsaduraren jarraipena egiteko. Ingurumenak kezkatzen bazaitu, eta itsasoan eta hondartzan zenbat itsas hondakin dagoen ikertzen lagundu nahi baduzu, boluntariotza programa **egokiaren aurrean zaude**.

SARRERA: Itsas Hondakinak eta MATERen jarduerak

Gaur egun dagoen ingurumen arazoaren arrazoi nagusiak dira itsas hondakinak eta mikroplastikoak. Mikroplastikoen pilaketak eta 5mm baino txikiagoak diren plastikoak, ozeanoaren ingurumena neurtzeko adierazle egokiak dira, hau hala omartzen dute itsas estrategiari buruzko esparru zuzentratuak, Nazio Batuen ingurumen programak edota osasunaren mundu erakundeak. Hainbat ikerketa zientifikok Bizkaiko golkoan itsas hondakin pilaketa handiak eta plastiko asko egoten direla baieztatu dute, bere ozeanogarfia fisiko, ibaien presentzia eta populazio dentsitate handia direla eta (Mendoza et al, 2020). Hala ere, gaur egun arazo honen ezjakintasuna oso handia da eta ikerketarako behar larria dago.

Materrek sentsibilizaziorako eta herritarren zientziarako egiten dituen jarduerak, helburu gisa Bizkaiko golkoaren ekialdean arazo hau epe ertain-luzean ezagutaraztea dute, bertan dagoen itsas hondakinaren karakterizazioaren eta jarraipenaren bitartez. Jarduera hauek honakoak izan daitezke; Mater ontziaren bitartez itsasora irteerak bertako itsas hondakinak eta mikroplastikoak arrantzatzeke, senadietan itsas hondakinen bilketak, hondartzetako mikroplastikoen analisiak eta Zero Zabor Uretan kanpaina. Bestalde, Seabin Pasaia uretako paperontziak jasotako lagin ezberdinak izango ditugu, badian kokatuta dago eta itsas hondakin flotatzaileak jasotzen ditu bertan.

Programa honen beste helburuetako bat, ikerketa zentroekin eta administrazioekin lortutako emaitzak konpartitzea da, protokolo estandarizatu baten bitartez, gero, MATERREK dituen kanal fisiko eta digitaletan emaitzak konpartitzeko asmoz, herritarrak sortzen dugun zaborra murriztearen garrantziaz sentsibilizatzeko.

METODOLOGIAREN LABURPENA

KONPROMEZU MAILA

- **Jarraia:** Astean 2 orduko inplikazio minimoa eskatzen da. Egunak eta orduak malguak dira.

BARNE HARTZEN DITU

- Agindutako zereginei buruzko berariazko orientazioa eta prestakuntza.
- Zereginak egiteko materiala
- Jardueran teknikari baten ikuskapena izatea
- Boluntariora-asegurua
- Elkarlanerako akordioa
- Programan parte hartu izanaren akordioa

BETEBEHARREN DESKRIBAPENA

Itsas hondakinen jarraipena eta karakterizazioa hainbat etapa ezberdinetan sailkatzen da. Etapa hauek errazak dira eta herritarren zientzian oinarriturik daude, itsas hondakinen laginen tipologia eta kantitatea aztertzeko asmoz. Etapak hurrengoak dira:

- **Laginketa:** Gailu ezberdinen bitartez itsas hondakinen eta mikroplastikoen bilketa, baldintza meteorologikoak kontuan hartuz.
- **Prozesatzea:** Jasotako itsas hondakinen eta mikroplastikoen banaketa, ondoren egingo den analisirako.
- **Itsas hondakinen analisisa:** Itsas hondakinen banaketa, materiala eta kategoria kontuan hartuz, emaitza kualitatiboak eta kuantitatiboak lortzeko.
- **Mikroplastikoen analisisa:** 2-5mm-ko mikroplastikoen banaketa, kategoria kontuan hartuz, emaitza kualitatiboak eta kuantitatiboak lortzeko.



BOLONDRESEN PERFILA (Adina, jakintzak, gaitasunak, hizkuntzak...)

1. Eskatzen diren trebetasuna

- Taldean lan egiteko prest egotea
- Motibazioa
- Pazientzia eta iraunkortasuna
- Mikroplastikoen analisirako garatutako motrizitate fina

2. Balioetsitako gaitasuna

- Ingurumen zientzien inguruko formakuntza
- Laboratorioko esperientzia, laginen analisisan edo mikroplastikoen analisisan

3. Interesak

- Naturaren kontserbazioa
- Itsas hondakinak


4. Lekua eta iraupena

Boluntariora programa honetako ekintzak MATER-en bulegoan egingo dira (C/San Pedro 46 BIS). Boluntario bakoitzaren kopromisoaren iraupena indarrean dagoen kanpainaren arabera izango da. Boluntarioen atxikimendua automatikoki luzatu ahal izango da, baldin eta boluntarioak, idatziz, baja eman nahi duela adierazten ez badu.

PROIEKTUAREN ARDURADUNA

SARA LIZARZA

HARREMANETARAKO INFORMAZIOA

 690 233 355

 proiektuak@mater.eus